

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2021eko irailaren 23an ondorengo Dekretu hau eman duela:

“Bergarako Udalak administrarien lan-poltsa osatzeko deialdia egin eta deialdia arautzeko oinarriak onartu zituen 2021eko uztailaren 23an emandako dekretu baten bidez.

Oinarrieta jasotakoaren inguruan hainbat eskaera eta iradokizun jaso dira:

1.-Lehiaketaldian jasotako IT txartelen atalari dagokionean:

1.- 2016. urtetik aurrera ateratako txartelak izateko baldintza kentzea.

Aurretik atera dutenek ez dutelako bigarren aldiz ateratzeko aukerarik (IT txartelaren inguruko informazioa jasotzen duen web-orrian horrela dago jasota: ezin da berriz izena eman gainditutako ziurtagirietan).

2.- Honako txartel hauen inguruko azalpena argitzea (zuzentzea):

c) Outlook-eko IT Txartela ziurtagiria izateagatik: ~~oinarrizko maila~~ puntu 1.

d) Microsoft Office IT Txartela ziurtatuz gero: ~~oinarrizko maila~~ 2 puntu.

2.- Lehiaketaldian 7. atalean jasotako “Unibertsitateko gradu edo goi mailako edo erdi mailako titulazioa izatea (ADE, Zuzenbidean edo Enpresagintzan eta antolakuntza eta baliabideen kudeaketaren arloko formazioa): 2 puntu bakoitzeko eta gehienez ere 4 puntu arte” atalean, “Zientzia politikoak eta kudeaketa publikoa” titulazioa ere kontuan izatea.

Bestalde, 11. eta 12. gaien erredakzioa hobetzea ere komeni dela ikusi da, eta jasotako erreklamazioak aintzat hartzea egoki ikusi da.

Horrenbestez, eta Idazkaritzako Administrazio Orokorreko teknikariak egindako proposamenari jarraituz, **ERABAKI DUT**

LEHENNGOA.- Lehiaketaldia arautzen duen 8. oinarriaren 1. zenbakian jasotako IT txartelen edukian, zuzenketak egitea eta honela jasotzea:

1.- IT txartela(k) izatea: gehienez ere 6 puntu. Informatikari buruzko ondorengo ezagutzak baloratuko dira:

a) Word-eko IT Txartela (Word 2010 edo geroagokoa) ziurtatzen bada: oinarrizko mailakoa puntu 1 eta maila aurreratua 2 puntu.

b) Excel-eko IT Txartela (Excel 2010 edo geroagokoa) ziurtatzen bada: oinarrizko maila: oinarrizko mailakoa puntu 1 eta maila aurreratua 2 puntu.

c) Outlook-eko IT Txartela ziurtatuz gero: puntu 1.

d) Microsoft Officeko IT Txartela ziurtatuz gero: 2 puntu.

e) Ofimatinako IT Txartela ziurtatuz gero: 2 puntu.

Titulu bakarra baloratuko da maila edo atal bakoitzeko, atal honetan deskribatutako ziurtagiri bat baino gehiago dituela egiaztatzen badu ere.

Puntuazio horiek emango zaizkie Informazioaren Gizartearen Euskadiko Planak KZ Guneko zentro publikoetan eskuragarri jartzen duen IT txartela egiaztatzen duten hautagaiei.

2.- 8. oinarri horretan 7. zenbakia horrela dago jasota:

7.- *Unibertsitateko gradu edo goi mailako edo erdi mailako titulazioa izatea (ADE, Zuzenbidean edo Enpresagintzan eta antolakuntza eta baliabideen kudeaketaren arloko formazioa): 2 puntu bakoitzeko eta gehienez ere 4 puntu arte .*

eta horrela jasoko du:

7. “*Unibertsitateko gradu edo goi mailako edo erdi mailako titulazioa izatea (ADEn, Zuzenbidean, Zientzia Politiko eta Kudeaketa Publikoan edo Enpresagintzan eta Administrazioan, eta antolakuntza eta baliabideen kudeaketarekin lotutako graduondoko beste unibertsitate-tituluak): 2 puntu titulu bakoitzeko eta gehienez ere 4 puntu arte*”.

3.- Gaitegiari dagokionean 11. eta 12. gaien zuzenketa egiten da:

Honela dago jasota:

11. gaia: 40/2015 Legea: Xedapen orokorrak, jarduera-printzipioak eta sektore publikoaren funtzionamendua: Organo kolegiatuen funtzionamendua (Atariko Titulua: II. kapitulua: 38 eta 39 artikuluak)

12. gaia: 40/2015 Legea: Xedapen orokorrak, jarduera-printzipioak eta sektore publikoaren funtzionamendua: Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (Atariko Titulua, V).

Honela jaso behar du:

11. gaia: 40/2015 Legea: Xedapen orokorrak, jarduera-printzipioak eta sektore publikoaren funtzionamendua: Organo kolegiatuen funtzionamendua (Atariko Titulua: II. kapitulua.)

12. gaia: 40/2015 Legea: Xedapen orokorrak, jarduera-printzipioak eta sektore publikoaren funtzionamendua: Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa (Atariko Titulua: V kapitulua: 38 eta 39 artikuluak).

BIGARRENA: Izena emateko epean aldaketa honek jaso dituen merituen agiriak aurkeztu ez dituzten izangaiei ohartaraztea emango den epe berri batean meritu horien agiriak onartuko direla (hau da, batetik, 2016tik atzerako IT txartelak eta, bestetik, unibertsitate-tituluak Zientzia Politiko eta Kudeaketa Publikoan edo Enpresagintzan eta Administrazioan, eta antolakuntza eta kudeaketa publikoarekin lotutako graduondoko beste unibertsitate-tituluak).

Adieraztea epaimahaiak horretarako epe bat emango duela oposizioaldiko frogatzea edo bi egin ondoren eta lehiaketaldia hasi aurretik, epe hori web-orrian eta iragarki taulan argitaratuko delarik.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunei eta zuzenketen berri ematea web-orrian eta Udaleko Iragarki Taulan.”



Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekursoa jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekursoaren aurretik, berrazterte errekursoa jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurso ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: *Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.*

Bergara, 2021eko irailaren 28a.

IDAZKARIA

SE COMUNICA que el Alcalde el día 23 de septiembre de 2021, ha emitido el siguiente Decreto:

“El Ayuntamiento de Bergara, mediante decreto dictado el 23 de julio de 2021, aprobó las bases de la convocatoria realizada para la creación de una bolsa de trabajo de personal administrativo.

En relación con el contenido de dichas bases se han recibido varias peticiones y sugerencias:

1.- Respecto al apartado de las tarjetas IT que se incluyen en la fase de concurso:

1.- Eliminar el requisito de que las tarjetas se hayan obtenido a partir del año 2016.

Dado que quienes las han obtenido con anterioridad no pueden presentarse por segunda vez (Así se indica en la página web que recoge la información sobre la tarjeta IT: No se pueden hacer exámenes de certificaciones aprobadas).

2.- Aclarar (corregir) la explicación sobre las siguientes tarjetas:

c) Estar en posesión de certificado IT Txartela de Outlook, nivel básico: 1 punto.

d) Por encontrarse en posesión de certificado IT Txartela Microsoft Office, nivel básico: 2 puntos.

2.- En el apartado 7 de la fase de concurso, donde se recoge “*Estar en posesión de una titulación universitaria de grado o de nivel superior o medio (en ADE, en Derecho o Empresariales y formación en el ámbito de la organización y gestión de recursos)*: 2 puntos por cada una hasta un máximo de 4 puntos”, tener también en cuenta la titulación de “Ciencias Políticas y Gestión Pública”.

Por otro lado, se ha observado que conviene también mejorar la redacción de los temas 11 y 12, y se ha considerado adecuado tomar en consideración las reclamaciones recibidas.

En vista de ello, y de conformidad con la propuesta efectuada por la técnica de Administración General de Secretaría, **HE RESUELTO**

PRIMERO. - Corregir el contenido sobre las tarjetas IT recogido en el número 1 de la base 8^a que rige la fase de oposición, de modo que dicho contenido queda así:

1.- Estar en posesión de tarjeta(s) IT: hasta un máximo de **6 puntos**. Se valorarán los siguientes conocimientos de Informática:

a) Estar en posesión de Certificado IT Txartela Word 2010 (o posterior): nivel básico, 1 punto; nivel avanzado, 2 puntos.

b) Estar en posesión de Certificado IT Txartela Excel 2010 (o posterior): nivel básico, 1 punto; nivel avanzado 2 puntos.

c) Estar en posesión de Certificado IT Txartela Outlook: 1 punto.

d) Estar en posesión de Certificado IT Txartela Microsoft Office: 2 puntos.

e) Estar en posesión de Certificado IT Txartela Ofimática: 2 puntos.

Únicamente se valorará un único título por nivel y apartado, con independencia de que se acredite estar en posesión de más de un certificado de los descritos en este punto.

Tales puntuaciones se otorgarán a las personas aspirantes que acrediten estar en posesión de la certificación IT Txartela que el Plan de Euskadi de la Sociedad de la Información pone a su disposición en los centros públicos de KZgunea.

2.- En la misma base 8^a, el número 7 dice así:

7.- Estar en posesión de una titulación universitaria de grado o de nivel superior o medio (en ADE, en Derecho o Empresariales y formación en el ámbito de la organización y gestión de recursos): 2 puntos por cada una, hasta un máximo de 4 puntos.

y debe quedar recogido así:

7. Estar en posesión de una titulación universitaria de grado o de nivel superior o medio (en ADE, Derecho, Ciencias Políticas y Gestión Pública o Empresariales y Administración, y otros títulos universitarios de postgrado en relación con la organización y gestión de recursos): 2 puntos por cada titulación, hasta un máximo de 4 puntos.

3.- En cuanto al temario, se procede a la corrección de los temas 11 y 12:

Dice así:

Tema 11: Ley 40/2015: Disposiciones generales, principios de actuación y funcionamiento del sector público: Funcionamiento de los órganos colegiados (Título Preliminar: Capítulo II; artículos 38 y 39).

Tema 12: Ley 40/2015: Disposiciones generales, principios de actuación y funcionamiento del sector público: Funcionamiento electrónico del sector público (Título Preliminar, Capítulo V).

Debe quedar así:

Tema 11: Ley 40/2015: Disposiciones generales, principios de actuación y funcionamiento del sector público: Funcionamiento de los órganos colegiados (Título Preliminar: Capítulo II).

Tema 12: Ley 40/2015: Disposiciones generales, principios de actuación y funcionamiento del sector público: Funcionamiento electrónico del sector público (Título Preliminar: Capítulo V: artículos 38 y 39).

SEGUNDO: Respecto a las personas aspirantes que durante el plazo de inscripción no hayan presentado la documentación de los méritos que recoge la presente modificación, advertirles que se va a conceder un nuevo plazo en el que serán admitidos los documentos relativos a dichos méritos (es decir, por un lado, las tarjetas IT anteriores al 2016 y, por otro lado, las titulaciones universitarias de Ciencias Políticas y Gestión Pública o Empresariales y Administración, o postgrados relacionados con organización y gestión pública).

Comunicarles que, para ello, una vez que se realicen una o dos pruebas de la fase de oposición, y siempre antes del inicio de la fase de concurso, el tribunal concederá un plazo, que se anunciará mediante publicación en la página web y en el tablón de anuncios.

TERCERO. - Comunicar esta resolución a las personas interesadas y dar cuenta de las correcciones en la página web y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento."

Recursos contra la resolución:

Contra la resolución que se le notifica, y que es definitiva en vía administrativa, podrá usted interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al del recibo de esta notificación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se le notifica podrá Vd. interponer RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el siguiente al recibo de esta notificación.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS: Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.

Bergara, 28 de septiembre de 2021


La Secretaria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU2fa890a9-c4c4-4bcd-92c8-c3089fc6ba00**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiazatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>



Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>